## 2023KO AURREKONTUKO AZALPEN TXOSTENA

KABIAk 16 egoitza kudeatzen ditu, zehazki honakoak: Andoain, Arrasate, Azkoitia, Bergara, Eibar, Elgoibar, Errenteria, Hernani, Irun, Lasarte-Oria, Oñati, Ordizia, Pasaia, Tolosa, Villabona eta Zumaia.

2023ko aurrekontua, 2020-2023 plan estrategikoan ezarritako ildo estrategikoen arabera egituratu da (Foru-gobernuaren jarraibideen eta plangintzan oinarrituta), horiek garatu eta ezartzeko behar diren urteko helburu eta ekintzak zehaztuz.

2023 urtean KABIAk "Etorkizuneko egoitzaranzko trantsizioa" Liburu Berdean definitutako gomendioen ezarpen prozesuarekin jarraituko du Gizarte Politiketako Departamentuak zehaztutako irizpideen arabera

2020-2023 aldirako KABIAko ildo estrategikoak honakoak dira:

1. Zerbitzu eskaintzan erreferente izatea.
2. Bateratze prozesuarekin jarraitu.
3. Kudeaketa zorrotza sustatu arlo ekonomikoan, asistentzialean eta langilerian.
4. Kabiaren posizioa indartu eta harremanak landu.

Bigarren ildo estrategikoa Gipuzkoako Foru Aldundiko 2020-23 plan estrategikoko 47 helburu estrategikoarekin lerrokatuta dago:

## INFORME EXPLICATIVO DEL PRESUPUESTO 2023

KABIA gestiona un total de 16 centros residenciales, en concreto los siguientes: Andoain, Arrasate, Azkoitia, Bergara, Eibar, Elgoibar, Errenteria, Hernani, Irún, Lasarte-Oria, Oñati, Ordizia, Pasaia, Tolosa, Villabona y Zumaia.

KABIA aprobó su plan estratégico 2020-2023 en función de las directrices y la planificación del gobierno foral. El presupuesto de 2023 se ha estructurado en función de las líneas estratégicas definidas en el mismo, identificando los objetivos y las actuaciones necesarias para su desarrollo e implementación.

En el año 2023, KABIA continuará con el proceso de implementación de las recomendaciones recogidas en el Libro Verde “La transición hacia la residencia del futuro” en función de los criterios definidos por el Departamento de Políticas Sociales.

Para el período 2020-23, las líneas estratégicas identificadas son las siguientes:

1. Ser referente en la prestación de servicios.
2. Continuar con el proceso de unificación.
3. Formentar una gestión rigurosa en el ámbito económico, asistencial y laboral.
4. Reforzar la posición de Kabia y trabajar las relaciones.

La segunda línea estratégica está directamente vinculada con el objetivo 47 del Plan Estratégico 2020-23 de la

Gizarte zerbitzuetako Gipuzkoako sistemaren antolaketa, kudeaketa, efizientzia eta bideragarritasuna hobetzea. Helburu horren barruan, “Zentro publikoak KABIA erakunde autonomoan batzeko prozesua osatzea eta bateratze prozesua sustatzea jarduketa ildoarekin lotuta dago” jarduketa ildoaren baitan kokatuko litzateke.

Diputación Foral de Gipuzkoa (Mejorar la organización, gestión, eficacia y viabilidad del sistema guipuzcoano de servicios sociales) y en concreto con la línea de actuación “Cumplimiento del proceso de integración de centros públicos en el organismo autónomo foral KABIA e impulsar el proceso de unificación”.

Ildo estrategiko horretan landuko diren helburuak honakoak dira: aplikazio informatikoak garatu, bateratu eta integrazioak landu eta prozesu maparen lan prozedurak bateratzen eta ezartzen jarraitu.

Los objetivos que se trabajarán en esta línea estratégica son el desarrollo, unificación e integración de aplicaciones informáticas y la continuación de la unificación e implantación de los procedimientos de trabajo del mapa de procesos.

Lehenengo ildoari dagokionez, zerbitzu eskaintzan erreferente izate aldera, 2023an hiru egoitzetan (Arrasate-Iturbide, Oñati-San Martin y Tolosa-Iurreamendi) lanak burutuko dira espazioak Liburu Berdean ezarritako irizpideetara egokitzeko. Halaber, Liburu Berdean ezarritako erreferentzia markoaren arabera, hainbat jarduera bideratuko dira ondorengo arlotan: efizientzia energetikoko neurriak ezarri, Inbertsio plana egin, instalazioen mantentze egokia egiten dela bermatu, Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean urratsak ematen jarraitu, euskara zerbitzu, lan eta komunikazio hizkuntza izan dadin indartu eta bultzatzen jarraitu, kudeaketa integraleko egoitzekin eduki beharreko harremanen irizpideak finkatu, zerbitzu enpresekin koordinazioa eta komunikazioa mantendu, Covid plana betetzea eta larrialdi sanitariotik ikasitakoak eta hutsuneak identifikatu, Aldundiko arreta eredu berrira egokitu, pertsonen bizi kalitatea erdigunean ipinita, entitateekin elkarlana eta erabiltzaileen eta senideen partaidetza bultzatu, azkenik, IKT bitartez erabiltzaileekin komunikazioa eta jarduerak bultzatu.

En lo que se refiere a la primera línea estratégica, con el fin de ser un referente en la prestación de servicios, en 2023 se realizarán en tres centros residenciales (Arrasate-Iturbide, Oñati-San Martín y Tolosa-Iurreamendi) obras dirigidas a adecuar parte de los espacios a los criterios definidos por el Libro Verde. Asimismo, en el marco del citado Libro Verde, se desarrollaran actuaciones dirigidas a implantar medidas de eficiencia energética, elaborar un plan de inversiones, garantizar el adecuado mantenimiento de las instalaciones, seguir avanzando en la igualdad de mujeres y hombres, reforzar e impulsar el uso del euskera como lengua de servicio, de trabajo y de comunicación, establecer criterios de relación con los centros de gestión integral, mantener la coordinación y comunicación con las empresas de servicios, cumplir el plan Covid e identificar aprendizajes y deficiencias de la crisis sanitaria, adecuarse al nuevo modelo de atención foral, fomentar la colaboración con las entidades y la participación de las personas usuarias y familiares, y, finalmente, impulsar la

comunicación y actividades con las personas usuarias a través de las TIC.

Hirugarren ildo estrategikoari dagokionez (Kudeaketa zorrotza sustatu arlo ekonomikoan, asistentzialean eta langilerian), jarduerak honakoak dira: aurrekontuaren kudeaketa eraginkorra egiten jarraitu eta kontratazio plana eta irizpideak bateratu eta garatzen jarraitu. Halaber, KABIAko zerbitzu zentraletako egitura osatzen joan beharko da egoitzetatik pasako diren langileekin edo/eta adostutako organigramaren arabera eta epealdi honetarako lehentasuna duten lanpostuak sortuz.

En relación con la tercera línea estratégica (fomentar una gestión rigurosa en el ámbito económico, asistencial y de personal), las actuaciones son las siguientes: continuar con la gestión eficiente del presupuesto y la unificación y desarrollo del plan de contratación y de los criterios. Asimismo, se deberá ir completando la estructura de los servicios centrales de KABIA con personal que pase de las residencias y/o creando puestos de trabajo en función del organigrama definido y las prioridades identificadas.

Ildo estrategiko honen barruan, 20/2021 Legeak bultzatutako egonkortze prozesuak berebiziko garrantzia dauka 2022ko EPEko deialdiak abian jarriko baitira.

Dentro de esta línea estratégica cobra especial relevancia el desarrollo del proceso de estabilización impulsado por la Ley 20/2021 ya que se llevarán a cabo las convocatorias de la OPE 2022.

Azken ildo estrategikoari dagokionez (KABIAren posizioa indartu eta harremanak landu) landuko diren gaiak honakoak izango dira besteak beste: Udalekin eta herriko eragileekin proiektuak garatu, Gizarte Politiketako Departamentua, GFA, foru sektore publikoa eta KABIAren harremana markoa zehaztu eta lankidetza gobernantza indartzen jarraitu eta, azkenik, gizarteari proiektatzen zaion irudia landu.

En cuanto a la última línea estratégica (reforzar la posición de KABIA y trabajar las relaciones) se tratarán temas como el desarrollo de proyectos con ayuntamientos y agentes locales, definir el marco de relación del Departamento de Políticas Sociales, DFG, sector público foral y KABIA y seguir reforzando la gobernanza colaborativa y, finalmente, trabajar la imagen que se proyecta a la sociedad.

Horren guztiaren ondorioz, KABIAko aurrekontua 2022an 63.498.094 eurokoa izatetik 2023an 69.976.295 euro izatea pasako da.

Como consecuencia de ello, el presupuesto de KABIA pasa de ser de 63.498.094 euros en 2022 a 69.976.295 euros en 2023.